

Antxiñako fotografia

Aurrekomendittarrak Urbixan

Zeintzuk dira **aurrekomendittarrak**? Nun dago **Aurrekomendi**? Edade batetik aurrerako onatiarrentzat esplikau biharrik eztakoin galdera honeik eztira, biharbada, hain samurrak jeneraziño gaztiaguentzat, batez be oso kaletarrak baldin badira. Izan be, Aurrekomendi ezta Oñatiko leku "ofizial" bat, hiru auzotako hainbat baserriz eta lur-saillez moldautako ingurune jakin bat baiño. Izenak berak agerketan doskun moduan, mendi aldian dago, Oñatik Legazpi, Antzuola eta Bergararekin mugak dittuan paraje aldapsu batzuetan. Izen horrek badako beste berezitasun bat: guretzat "aurrekua" dan lez, beste herri horreintzat "atzekua" izango dala; ikuspuntuaren araberako toponimia, jakiña.



Aurrekomendiko baserrixak, ba, **Larraña, Garibai** eta **Zubillaga** auzuetako goi-aldeko lurretan dagoz kokatuta. Gaur egunian, etxe horreittako askotan ezta iñor bizi, nahiz eta gehixenak zaindutta eta jare barik egon. Argazkixa atara zan denporan, baiña, gazte honeik baserri horreittan bizi ziran. Auzo desbardiñateko baserriar honein batasuna hiru tokittan mamiketean zan: **Sarramendiko eskolan, Koixkarko ermittan** eta **Lizargarateko tabernan**; hemen egitten ziran erromerixak famauak izaten ziran, **Azaldittakua** ahaztu barik. Bazan, horregatiok, urteroko beste ibillaldi jakin bat: Arantzazuko Ama Birjiñiaren egunaren ondorengo domekan urtero faten ziran **Aurrekomendiko neska-mutillak Urbixara**, ordurako baserri-lan haundixenak modututa egoten ziran-eta. Orain dala 60 bat urteko argazki honetan gazte pillatxua agiri da Urbixako zelaixan, Arbelazko tontorra atzian ikusten dala. Gerora be luzaruan jarraitu euen aurremendittarrok urteroko eskursiñuori egitten. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue gaztiok:

Goixeneko illarako mutillak: **Tomas Jauregi**, Duruangua; **Sabino Aiastui**, Koixkar Garaikua; **Joxe Aiastui**, Askazubikua; **Juane Garaizabal**, Lizargaratekua; **Jexus Zufiria**, Koixkar Garaikua; **Rufino Agirre**, Alkortakua; **Felix Aiastui**, Olabarrikua; eta **Felix Zufiria**, Koixkar Garaikua.

Bigarren illaran: **Anttoni Zugasti**, Antzuelas Goittikua; **Iñaxio Arregi**, Koixkar Azpikua; **Jesusa Guridi**, Antzuelas Beittikua; **Pedro Arregi**, Koixkar Azpikua; **Jabier Arregi**, Koixkar Azpikua; **Euxebio Agirre**, Alkortakua; **Bixenta Aiastui**, Koixkar Garaikua; **Joxe Aiastui**, Koixkar Garaikua; eta **Rufino Erostege**, Kortazargua.

Hirugarren illaran, jarritta: **Felipe Aiastui**, Olabarrikua; **Maria Garaizabal**, Lizargaratekua; **Ramon Guridi**, Antzuelas Beittikua; **Kontxita (X)**, Bergaratik Duruanera etorri eta Lizargaratera ezkondu zana; **Jabier Markinez**, Kasablankakua, garai haretan Antzuelas Goittikuan morroi eguena; **Maritxu Jauregi**, Duruangua; eta **Gregorio Zugasti**, Antzuelas Goittikua.

Barreneko illarakuak: **Joxe Zugasti**, Antzuelas Goittikua; **Joxe Mari Arregi**, Koixkar Azpikua; **Bixente Zugasti**, Antzuelas Goittikua; **Maria Anjeles Aiastui**, Askazubikua; **Xanti Guridi**, Antzuelas Beittikua; **Maritxu Arriaran**, Antzuelas Goittikua; **Gregorio Kortabarría**, Sarramendiko soiñujolia; **Joxepi Aiastui**, Askazubikua; **Jexus Agirre**, Alkortakua; **Pilar Guridi**, Antzuelas Beittikua; eta **Luis Arregi**, Koixkar Azpikua.

J. E.

Fotografixa Koixkar Garaiko Pedro Zufiria zanak ataratakua da. Guri Pilar Guridik esku ratu dosku eta argibiderik gehixenak be berari zor xaugu. Milla esker!